deko araudiak zehazten duen moduan banatuko direla kapitalaren errentak.

Zuzendaritza honek

ERABAKI DU:

*Lehenengoa.*– Bastidako (Araba) «Obra Pia de D. Juan Manuel Tosantos» eta Vitoria-Gasteizko (Araba) «Obra Pia Landa» Iraskundeak «Agregación de Fundaciones Benéfico-Particulares de la Provincia de Alava» izeneko Iraskundean sartzeko espedientea onartzea.

*Bigarrena.*– Iraskundeetako Patronatu-Batzordeek iraskunde horietako agiri guztiak eta kapitalaren saldo erabilgarriak Sail honen esku jar ditzatela.

*Hirugarrena.*– Iraskundeen eta Ongintza-Partikular motako Elkarteen eta Antzeko Erakundeen Erregistroan Erabaki honen berri izan dezatela.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko martxoak 23.

Gizarte Ongizate Zuzendaria,
CARLOS BERROCAL URIBE.

se distribuirán en la forma que determina el reglamento de la Fundación en la cual se integran.

Esta Dirección:

HA RESUELTO:

*Primero.*– Aprobar el expediente de integración en la Fundación «Agregación de Fundaciones Benéfico-Particulares de la Provincia de Alava» de las fundaciones «Obra Pia de D. Juan Manuel Tosantos» de Labastida (Alava) y «Obra Pia Landa» de Vitoria-Gasteiz (Alava).

*Segundo.*– Que por parte de las Juntas de Patronato de las Fundaciones, se proceda a la entrega de toda la documentación de las mismas y de los saldos de capital disponibles, poniéndolos a disposición de este Departamento.

*Tercera.*– Que de esta Resolución se tome nota en el Registro de Fundaciones, Asociaciones Benéfico-Particulares y Entidades análogas.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 1993.

El Director de Bienestar Social,
CARLOS BERROCAL URIBE.

**1485**

ERABAKIA, 1993ko martxoaren 23koa, Gizarte Ongizate Zuzendaritzarena, Bilboko (Bizkaia) «GIZAKIA» Iraskundea sailkatu eta Ongintza-Sorospen Iraskunde eta Elkarteen eta Antzeko Erakundeen Erregistroan sartzeari buruzkoa.

Ikusirik «GIZAKIA» Iraskundea Ongintza-Partikular bezala sailkatu eta inskribatzeko espedientea eta eskabidea.

Hau honela: Luis María de Larrea y Legarreta Jn. Txit Gorenak, «GIZAKIA» erakundearen izenean eta ordezkari legez, Bilboko Kolegio Txit Argiko Notari den Juan Ignacio Gomeza Villa jaunaren aurrean egindako eskrituraz eratu zen Bilbon (Bizkaian) «GIZAKIA» Iraskundea, 1991ko uztailaren 3an. Hori horrela, Juan Ignacio Gomeza Villa jaunak Iraskunde hori Ongintza-Partikular gisa onar dadila eta, ondorioz, dagokion Erregistroan horrelaxe sailkatu eta inskriba dadila eskatu zuen.

Hau honela: Eskatzaileak honako agiriok aurkeztu zituen: Iraskundearen Eratze-Agiria, Estatutuak, Patronatu-Batzordearen Izendapena eta bertako kideek euren karguak onartzen dituztela erakusten duen notari-agiria, eta Iraskundearen ondarea osatzen duten ondasunen egiaztagiria.

Hau honela: Iraskundearen helburua, estatutuetako zazpigarren atalean adierazten denaren arabera, honako hau da: «... edozein gisako gizonezko zein emakumezko drogazaletasun nahiz bestelako toxikozaletasunen aurrean babestea. Horretarako, Bilboko Elizbarrutiak 1983an bultzatutako «Gizakia Helburu» izeneko egitaraua indartzeko ardura bere gain hartzen du. Horrez gain, edonolako toxikozaletasunei aurrea hartzeko nahiz toxikozaleak sendatu eta bergizarteratzeko asmoz etorkizunean bultzatzen diren antzeko egitarauei laguntzeko prest agertzen da.»

Hau honela: Iraskundeko Patronatu-Batzordea ho-

**1485**

RESOLUCION de 23 de marzo de 1993, del Director de Bienestar Social, sobre clasificación e inscripción en el Registro de Fundaciones, Asociaciones Benéfico-Asistenciales y Entidades Análogas de la Fundación «GIZAKIA», de Bilbao (Bizkaia).

Visto el expediente y la solicitud de clasificación e inscripción de la Fundación «GIZAKIA» como de carácter Benéfico-Particular.

Resultando: Que D. Juan Ignacio Gomeza Villa solicitó que fuese reconocido el carácter benéfico-particular y, como tal, clasificada e inscrita en el Registro correspondiente la Fundación «GIZAKIA» instituida en Bilbao (Bizkaia) el 3 de julio de 1991 mediante escritura otorgada por el Excmo. y Rvdmo. Sr. D. Luis María de Larrea y Legarreta en nombre y representación de la entidad «GIZAKIA» ante D. Juan Ignacio Gomeza Villa, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao.

Resultando: Que los documentos aportados por el solicitante son los siguientes: Escritura de constitución de la Fundación, Estatutos, Nombramiento de la Junta de Patronato y aceptación notarial de los cargos por los miembros de la misma, Certificación acreditativa de los bienes que constituyen el patrimonio de la Fundación.

Resultando: Que el objeto de la Fundación tal como aparece recogido en el artículo séptimo de sus estatutos consiste en: «... la defensa de los hombres y mujeres de cualquier condición frente a la drogadicción y otros tipos de toxicomanías. Para ello asume y apoya la consolidación del programa denominado «Proyecto Hombre», promovido por la diócesis de Bilbao en 1983 y está abierta a otros programas similares que puedan promoverse en el futuro en orden a la prevención de las toxicomanías de todo tipo, a la recuperación y reinserción de los toxicómanos.»

Resultando: Que el Consejo de Patronato de la Fun-

nako lagunok osatzen dute: Luis María de Larrea y Legarreta jaunak, Manuel Merino Pastor jaunak, Antonio Petit Caro jaunak, Iñaki Goikuria Ormaetxea jaunak, Juan Ramón Trabudúa Fernández de Aguirre jaunak, Juan Ignacio Gomeza Villa jaunak, Joaquin Gorordo Bilbao jaunak, Juan Luis Isasi Martínez jaunak, Manuela Olabarri de la Sota andreak, Kepa Rekakoetxea Lekue jaunak eta Juan María Vidarte de Ugarte jaunak.

Hau honela: Iraskundearen ondarea bost milioi pezetakoa da (5.000.000 PTA).

Ikusirik: 1899ko martxoaren 14ko Errege Dekretua eta Instrukzioa, Eusko Jaurlaritzaren azaroaren 12ko 359/1985 Dekretua eta ezarri daitezkeen gainontzeko erabakiak.

Hau kontutan izanik: Gizarte Ongizate Zuzendaritza hau dela espediente hau erabakitzeko aginpidedun, irailaren 26ko 2768/1980 Errege Dekretuak eta Eusko Jaurlaritzaren maiatzaren 14ko 315/1991 Dekretuak Ongintza-Partikular motako Iraskundeen Protektoradutzari dagozkionetan ematen dizkioten ahalmenen ondorioz.

Hau kontutan izanik: Administrazioaren Jardunbideari buruzko Legeko 80. eta 91. ataletan ezarritakoari jarraiki, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta Bilboko Udaletxeko iragarki-oholean agerian egon zela iragarkia. Halaber, legez ezarritako entzunaldia eman eta ez zen inolako erreklamazio nahiz arrazoibiderik azaldu.

Hau kontutan izanik: 1899ko martxoaren 14ko Dekretuarekin bat etorriz, ondasun partikularrekin sortu eta hornitutako, eta sortzaileek araututako Patronatua eta Administrazioa duten erakunde guztiak ongintza-partikular motakoak direla, eta espediente honetan baldintza guzti horiek betetzen dira.

Hau kontutan izanik: Iraskundearen ongintza eta sorospen helburuak betetzeko adinakoa dela ondarea, 1899ko martxoaren 14ko Instrukzioko 58. atalean eskatzen denari jarraiki.

Hau kontutan izanik: Patronatu-Batzordea seigarren idazatian adierazten diren lagunek osatzen dutela, Bilboko Kolegio Txit Argiko Notari den Juan Ignacio Gomeza Villa jaunak emandako eskrituran ageri denez.

Hau kontutan izanik: Aipatu Patronatuak kontuak eman eta aurrekontuak aurkeztu beharko dizkiola, urtero, Eusko Jaurlaritzako Protekturadutzari.

Zuzendaritza honek, eman zaizkion ahalmenez baliatuz, honako hau

XEDATU DU:

*Lehena.*– Bilboko (Bizkaia) «GIZAKIA» Iraskundea Ongintza Partikular motakoa bezala sailkatzea.

*Bigarrena.*– Ongintza-Sorospen Iraskunde eta Elkarteen eta Antzeko Erakundeen Errejistroan B - 54 zenbakiaz inskribatzea.

*Hirugarrena.*– Iraskundeko Patronatuko kideak, seigarren idazatian adierazten direnak, beren karguan sendestea. Urtero kontuak eta aurrekontuak aurkeztu beharko dizkiote Protekturadutzari, eta euren karguetako ordezkoak izendatzeko orduan Iraskundearen sorreran ohartemandakoari men egin beharko diote; hori horrela gertatzen denean, egindakoaren berri

dación está compuesto por: D. Luis María de Larrea y Legarreta, D. Manuel Merino Pastor, D. Antonio Petit Caro, D. Iñaki Goikuría Ormaetxea, D. Juan Ramón Trabudúa Fernandez de Aguirre, D. Juan Ignacio Gomeza Villa, D. Joaquín Gorordo Bilbao, D. Juan Luis Isasi Martínez, Dña. Manuela Olabarri de la Sota, D. Kepa Rekakoetxea Lekue y D. Juan María Vidarte de Ugarte.

Resultando: Que el patrimonio fundacional asciende a cinco millones de pesetas (5.000.000 PTA).

Vistos: El Real Decreto y la Instrucción de 14 de marzo de 1899, el Decreto del Gobierno Vasco 359/1985 de 12 de noviembre y demás disposiciones aplicables.

Considerando: Que esta Dirección de Bienestar Social es competente para resolver el presente expediente, en uso de las facultades que en orden al ejercicio del Protectorado sobre las Fundaciones Benéfico-Particulares tiene en base al Real Decreto 2768/1980 de 26 de setiembre y Decreto del Gobierno Vasco 315/1991, de 14 de mayo.

Considerando: Que de conformidad con lo dispuesto en los artículos 80 y 91 de la Ley de Procedimiento Administrativo, fue publicado anuncio en el Boletín Oficial del País Vasco y fue expuesto en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de Bilbao, concediendo el preceptivo trámite de audiencia, sin haberse presentado reclamación ni alegación de ningún tipo.

Considerando: Que conforme al Decreto de 14 de marzo de 1899, artículo 4.º, son de beneficencia particular todas las instituciones creadas y dotadas con bienes particulares y cuyo Patronazgo y Administración haya sido reglamentado por los respectivos fundadores, circustancias que concurren en el presente expediente.

Considerando: Que el patrimonio fundacional se estima suficiente para el cumplimiento de los fines benéfico-asistenciales señalados a la Fundación, tal como aparece exigido en el artículo 58 de la Instrucción de 14 de marzo de 1899.

Considerando: Que la Junta de Patronato se encuentra integrada por los miembros que se mencionan en el cuarto Resultando, según consta en la escritura otorgada ante D. Juan Ignacio Gomeza Villa, Notario del Ilustre Colegio de Bilbao.

Considerando: Que el citado Patronato está obligado a la rendición de cuentas y presentación de presupuestos, anualmente, ante el Protectorado del Gobierno Vasco.

Esta Dirección en uso de las facultades que le están conferidas:

HA DISPUESTO:

*Primero.*– Clasificar como de Beneficencia Particular, la Fundación «GIZAKIA», de Bilbao (Bizkaia).

*Segundo.*– Inscribirla en el Registro de Fundaciones, Asociaciones Benéfico-Asistenciales y Entidades Análogas con el número B - 54.

*Tercero.*– Que se confirme en su cargo a los Patronos de la Fundación que integran la Junta de Patronato y cuyos nombres se expresan en el cuarto Resultando, teniendo la obligación de rendir cuentas y presentar presupuestos anualmente ante el Protectorado, debiéndose atener a las previsiones fundacionales en cuanto al nombramiento de las personas que habrán de sustituir-

emango beharko zaio Protekturadutza honi.

*Laugarrena.*– Erabaki honen berri eman dadila.

Vitoria-Gasteiz, 1993ko martxoak 23.

Gizarte Ongizate Zuzendaria,
CARLOS BERROCAL URIBE.

## KULTURA SAILA

**1486**

108/1993 DEKRETUA, apirilaren 20koa, «Begoñatarren Etxea» Monumentu izendapenaz Kultura Ondare gisa sailkatu eta babesteko modua arautzen duena.

1990.eko ekainaren 29an, Ana de Begoña Azkarraga andereak, Euskal Kultura Ondarearen 7/1990 Legearen 11. atalaren bigarren lerroaldian aitortutako ahalmenak erabiliaz, «Begoñatarren Etxea» Kultura Interesdun Ondare gisa izendatzeari ekiteko eskabidea egin zuen Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailean.

1990.eko azaroaren 2an, Kultura Sailburuordeak, eskabidean aipatutako ondasunaren berariazko izaera ikusita, baita bere antzinatasun eta balio historiko-arkitektonikoa ere, eta arlo honetan erabilgarri den legearautegian ezarritakoa kontuan hartuta, alegia, Konstituzioan bertan (149,1,28 eta 149,3. atalak), Autonomia Estatutuan (10,19 atalak) eta uztailaren 3ko 7/1990 Legean adirazitakoa aintzat hartuta, «Begoñatarren Etxea» Monumentu izendapenaz Kultura Ondasun gisa sailkatzeko espedienteari ekitea erabaki zuen aipatutako Legeari jarraituz.

Espediente hori administrazio bidetik abiatzeko, eta aipatutako Legaren 11. atalaren 3. lerroaldian eta arlo honetan erabilgarri diren gainerako erabakietan ezarritakoari jarraituz, txostena egiteko eskabidea egin zitzaion Euskadiko Monumentu Arkitektonikoen Ondarearen Aholku Batzordeari eta, era berean, espedientea jende aurrean egon zen informazio publikorako.

Euskadiko Monumentu Arkitektonikoen Ondarearen Aholku Batzordeak, 1991.eko apirilaren 8an eta 24an, aldeko iritzia eman zuen, bai sailkapenari dagokionez, baita proposatutako babesteko moduari ere. Babesteko modu hau, aipatutako lege arauaren 12. atalaren 1. zenbakiaren d) letran zehaztutako nondik-norakoei egokitzen zaie eta, horrez gainera, Aguraingo Herrigunerako Plan Berezia aldatzea eskatzen du, atal honen 2. zenbakian agindutakoaren arabera.

Horrenbestez, aipatutako Legearen 11,1 eta 12. ataletan ezarritakoa kontuan hartuta, Euskadiko Monumentu Arkitektonikoen Ondarearen Aholku Batzordeak egindako txostena ikusita eta Gobernu Batzordeak 1993ko apirilaren 20eko bileran aztertu eta onartu ondoren,

les en sus cargos y dando cuenta a este Protectorado cuando tal hecho se dé.

*Cuarto.*– Que de esta Resolución se den los traslados reglamentarios.

Vitoria-Gasteiz, a 23 de marzo de 1993.

El Director de Bienestar Social,
CARLOS BERROCAL URIBE.

## DEPARTAMENTO DE CULTURA

**1486**

DECRETO 108/1993, de 20 de abril, por el que se califica la «Casa de Begoña» como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, y se fija su régimen de protección.

El 29 de junio de 1990, Dña. Ana de Begoña Azkarraga, en ejercicio de las facultades reconocidas en el párrafo segundo del artículo 11 de la Ley 7/1990, de Patrimonio Cultural Vasco, formuló petición ante el Departamento de Cultura del Gobierno Vasco para que se procediera a la declaración de la «Casa de Begoña» como Bien de Interés Cultural.

Con fecha 2 de noviembre de 1990, el Viceconsejero de Cultura, a la vista del carácter singular del bien al que se refería la solicitud, así como de su antigüedad y valor histórico-arquitectónico, y a tenor de lo dispuesto en la normativa legal aplicable, que se extiende desde la misma Constitución (artículos 149,1,28 y 149,3), el Estatuto de Autonomía (artículo 10,19) y la propia Ley 7/1990, de 3 de julio, resolvió incoar en la misma fecha expediente para la calificación de la «Casa de Begoña» como Bien Cultural, con la categoría de Monumento, con arreglo a la citada Ley.

La tramitación administrativa del expediente de referencia implicó, de conformidad a lo establecido en el párrafo tercero del artículo 11 de la mencionada Ley y demás disposiciones aplicables, la solicitud de informe al Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu Arkitektonikoaren Aholku Batzordea, así como el sometimiento de dicho expediente al trámite de información pública.

Con fechas 8 y 24 de abril de 1991, el Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu Arkitektonikoaren Aholku Batzordea, informó favorablemente, tanto la calificación instada, como el régimen de protección propuesto, el cual se ajusta a las prescripciones fijadas en el apartado d) del número 1 del artículo 12 de la citada norma legal, régimen éste que requiere la modificación del Plan Especial del Casco Histórico de Salvatierra-Agurain, conforme a lo dispuesto en el número 2 de este artículo.

Por todo lo expuesto, y a tenor de lo establecido en el artículo 11,1 y 12 de la mencionada Ley, visto el informe del Consejo Asesor de Patrimonio Arquitectónico Monumental de Euskadi/Euskadiko Monumentu Arkitektonikoaren Aholku Batzordea, a propuesta del Consejero de Cultura, previa deliberación y aprobación del Consejo de Gobierno en su sesión celebrada el día 20 de abril de 1993,